

Nor da benetan Frida Kahlo:

***"Oinak zertarako nahi ditut hegan egiteko hegoak
baditut?"***



Frida Kahlo: Mexikoko artista bikaina, errebeldea eta inkonformista, nor izan zen benetan esango dizugu.

Frida Kahlo Mexikoko margolari garrantzitsuenetakoa izateaz ez ezik, emakumearen eta haien emantzipazioaren eta indarraren sinboloa bihurtu den emakumea da.

Espiritu errebeldea, gorputz hauskor baten barruan, gaixotasunak eta minak markatutako bizitza laburra izan zuen: 47 urte zituela hil zen.

Nor da Frida Kahlo de Rivera

Izena Magdalena Carmen Frida Kahlo y Calderón

Nazionalitatea Mexikarra

Jaio-hil: 1907ko uztailaren 6an Coyoacán-en, Mexiko Hirian. 1954ko uztailaren 13an (47 urte) Coyoacán-en, hil zen. Bertan bere etxea zegoen, Casa Azzurra, sinplea eta ederra, koloreko

paretak, argia eta eguzkia, Diego Riverak Mexikori eman zion eta gaur arte askok bisitatu egin dute.

Aita, Wilhelm Kahlo, jatorri hungariarreko margolaria da. Mexikora emigratuta, Guillermo izena aldatu zuen. Bere lehen ezkontzak alargunduta, 1898an berriro ezkondu zen **Fridaren ama** izango denarekin, Matilde Calderon y Gonzales (erdi mexikarra eta erdi indiarra). Lau seme-alaba izan zituzten.



Frida lauren artean biziena eta errebeldeena zen. Osasun aldetik ahulena izan arren, **independientea eta sutsua zen, arau eta konbentzio guztiekin intolerantea.**

Frida Kahlok istripu larria izan zuen 18 urte zituela autobusean zihoala, bizkarrezurra eta pelbisa apurtu zituen. Horren ostean, denbora luzea igaro zuen ohean etzanda mugiezinik. Gurasoek pintzelak eta margoak eraman zizkioten, eta hala hasi zen Frida margotzen. Gainera, ispilu bat jarri zioten gelako sabailean, Frida arratsalde bakartietan hain bakarrik ez sentitzeko. Horrek artistaren autoerretratu ugari azaltzen ditu. Berak hurrengo esan zuen: - ***Autoerretratuak margotzen ditut askotan bakarrik nagoelako eta gehien ezagutzen dudan pertsona naizelako***.



32 ebakuntza egin zizkioten bere bizitzan zehar ez diote sekula bere mugikortasun osoa berreskuratu, eta bizitzan zehar min ikaragarriekin bizi beharko du gorputzean zehar.

Lehenengo haurrarekin haurdun geratu zenean, Fridak ahal zuen guztia egin zuen haurdunaldia aurrera eramateko. Baina medikuek abortatzera behartu zuten, hari eta haurrari bizitza galtzea **ekiditeko**.

..... *Hiztegia*

Alargunduta: alargun geratu zen, bere bikotea hil zen.

Biziena: energía gehien zuena.

Ekiditzeko: ez gertatzeko, impedir.

ULERMEN GALDERAK

1. Zenbat urterekin hil egin zen? ____.
2. Zer izen dauka Fridaren familiaren etxeak? _____.
3. Non jaio zen Fridaren aita? _____ jaio zen.

4. Zenbat seme-alaba izan zituzten Fridaren gurasoek? ____ seme-alaba izan zituzten.
5. Zer gertatu zitzaion Fridari 18 urte zituela? _____.
6. Ohean gaixorik egon zenean zer jarri zuten bere gelako sabailean? _____ bat jarri zuten.
7. Ohean egon eta gero Fridak mina izaten jarraitu zuen? ____.
8. Fridak haurrarik eduki al zuen? ____.

EGIA ALA GEZURRA

1. Frida Kahlo emakume zintzoa eta konformista zen. Egia Gezurra
2. Frida Mexikoko margolari garrantzitsuenetako bat izan zen. Egia Gezurra
3. Emakumeen askatasunaren aldekoa zen. Egia Gezurra
4. Herri berean jaio eta hil egin zen. Egia Gezurra
5. Frida bere anaia-arreben artean lasaienetakoa zen. Egia Gezurra
6. Denbora luzea igaro zuen mugitu ezin gabe. Egia Gezurra
7. Fridari ez zitzaizkion autoerretratuak gustatzen. Egia Gezurra
8. Ebakuntzei esker Fridak bere gorputza berriro ondo mugitzea lortu egin zuen.
Egia Gezurra